



# VII. Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak

## Artiumeko Liburutegi eta Dokumentazio-Zentroa

2014ko urriaren 29an eta 30ean. Artium Museoa  
Informazio-zerbitzuen lidergoa XXI. mendean

**Vivanco esperientziak: ardoaren kultura zabaltzen**

Hitzaldia: Nuria del Río Pozo

Vivanco Ardoaren Kulturaren Dokumentazio-Zentroa

# Vivanco esperientziak: ardoaren kultura zabaltzen

2004an, Vivanco familiak, Brionesen, Errioxan, lan gogorreko eta poz handiko bizitza bateko ametsa gauzatzea erabaki zuen: besterekin partekatzea Ardoaren Kulturak sortzen dion pasioa.

## VIVANCO FAMILIA DA

Mahastian hasten den jatorri apal eta soil batetik abiatuta, ardoa izan da beti familia honen ardatza, lau belaunaldiz eta lan eta konpromisozko 100 urtez. Aitzindari-espirtuarekin eta mugarik gabeko ilusioarekin, heldua zen bokazio hau partekatzeko unea, ardoari itzuliz ardoak eman zien guztia.

## VIVANCO ARDOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO DA

Ardoa ikuspegi arduratsu, dinamiko eta garaikide batetik ulertzen den upelategi batekin. Proiektu enologiko garaikidea, ardo desberdin eta bereziekin. Bitxitasunez betetako lur baten zinezko adierazpena.

## VIVANCO KULTURA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO DA

Iragana eta oraina batzen diren Fundazio bat. Esperientziatik, sentikortasunetik eta berrikuntzatik abiatuta, ardoaren funtsa deskubritzen den Museo guztiz berezi batean, Jakintzaren eta historiaren barna egindako bidaia hunkigarria.

## VIVANCO ESPERIENTZIAK BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO DA

Ardoak protagonismo osoa hartzen duen sentsazio-unibertso batera eraman nahi dugu bisitaria. 9.000 m<sup>2</sup> dira, kulturaren, artearen, gastronomiaren, zapoaren eta dibertsioaren inguruko emozioz eta jardueraz beteak. Ardoaren ezagutzaren eta gozamenaren arteko topagunea.

Gaur egun, Vivancon, bizitzeko modu baten tankeran ulertzen da ardoa, ikuspegi berritzaile eta energiaz beteriko batetik, Ardoaren Kulturaren inguruko esperientzia bakarra eta eskusiboa eskainiz betiere. Vivanco familiak «ardoak eman dien guztia ardoari itzultzeko» duen konpromisoaren isla leiala dira Upelategia, Fundazioa eta Esperientziak, eta horixe deskubritzera gonbidatzen zaituztegu.

VIVANCO, ESPERIENTZIA BAKARRA, ZEINAK KONBINATZEN BAITITU PROIEKTU ENOLOGIKO GARAIKIDE BAT ETA ARDOAREN MUNDUAREN INGURUKO BIZITZA-ESTILO BAT BULTZATZEN DUEN JAKINTZA-ESPASIO BAT.

VIVANCO  
FAMILIA DA

Familia honen historia ardoari lotua egon da beti. Tira, beti-beti ere ez. Esan genezake duela 100 urte hasi zela lau belaunaldiz luzatu den amets hau guztia, birraitona, Pedro Vivanco González, familiak zeukan mahasti txiki bateko mahatsak lantzen hasi zenean, Alberiten (Errioxa). Ez zen gauza erraza mahastizain txikientzat denbora haietan ardoa produzitzea. Eta gutxiago saltzea. Baliabide teknikorik ez zen, eta ilusioak ezkutatzen zuen errealitateak agerian jartzen zuen guztia. Denbora zailak izan ziren, baina baita erabakigarriak ere.

Aitona Santiagok jarraitu zuen birraitonak hasitako negozio txiki hartan lanean. Aitona langile amorratua zen, baina emazteak, Felisa Paracuellos amonak, bultzatu zuen aurrera egitera. Amonak jarri zuen nolabait ere abian dena. Batez ere bere espirituagatik eta erabakimenagatik. Hark animatu zuen bere semea ikastera, Pedro Vivanco Paracuellos. Eta hark elikatu zuen pixkana-pixkana familia osoan barna zabaldu zen Ardoaren Kulturaren sugar hori. Zer esan liteke Pedro Vivancoz. Gizon umila, gertukoa, adiskidetsua, 14 urterekin lanean hasi zena, Logroño osoan barna ardoa banatuz bizikleta batean. Gero kamioira igo zen, eta Errioxa osoa eta inguruko probintziak korritu zituen. Zangen eta bidaien artean, ardoaz maitemindu zen. Eta erabaki zuen ikasten ez bazuen ezingo zuela bere egiazko zaletasuna landu. Requenara joan zen. Enologia-ikasketak egin zituen. Mundu osoan ibili zen bidaian. Eta Ardoarekin loturiko era guztietako objektuen bilduma hasi zen egiten. Errespetuz. Debozio eta suhartasun hutsez. Negozioa hazi egin zen. Mahasti batzuk erosi ziren, ardoa botilaratzen hasi zen, upelak egiten, oparotasuna lortzen...

Ardoak eman zien dena. Vivancotarrek, nolabait ere, hura itzultzeko obligazioa zuten. Eta obligazio hori bihurtu zen Vivanco gaur den amets hau, zeina 2004. urtean jaio baitzen. Ardoa eta ardoaren kultura osotasunaren zerbitzura dauden toki bat. Gaur egun, ardoa baino askoz ere gehiago da Vivanco. Upelategi bat, Fundazio bat Museo bakar batekin, eta ezin konta ahala Esperientzia enoturistiko, gure pasioa partekatzeko xedea dutenak.

ARDOAK  
EMAN DIGUN GUZTIA  
ARDOARI ITZULTZEA

## FUNDAZIOA

### DESKUBRITU AL DUZU INOIZ ARDOAREN HISTORIAREN ETA KULTURAREN ABERASTASUNA?

Gazte-gaztetandik liluragarria izan zen Santi Vivancorentzat ardoaren atzean zegoen guztia. Zergatik maitemindu zen duela 8.000 urte gizona ardoaz? Zerk egiten zuen ardo horren erakargarria eta seduzitzailea? Zer zeukan ardoak, zerk egiten zuen elementu inspiratzailea era guztietako zibilizazioentzat? Santi Vivancori beharrezkoa iruditzen zitzaion jakitea zer inspiratu zien ardoak egiptoarrei, grekoei, erromatarrei... Zer izan zen iraganean, zer den orain eta zer izango den etorkizunean. Norantz doa ardo? Zer egin genezake hobetzeko? Literatura, artea, zinema, gastronomia, heziketa, ikerketa... hori guztia interesatzen zaigu eta hori guztia nahi dugu partekatu eta ezagutarazi. Horregatik sortu da Fundazio hau bere Museoarekin, bere Dokumentazio Zentroarekin eta bere Argitaletxearekin. Hortik sortu da betiereko historia hau. Hortik, bizitzakonpromiso hau.

## PATROIAK

Fundazioak babes- eta aholkularitza-organo bat antolatu du: Patroi Handien Batzorde Nagusia. Hainbat alor lantzen dituzten pertsona aipagarriek osatzen dute: osasuna, kultura, artea, gastronomia, enologia, ardogintza, historia, komunikazioa. Egin nahi diren azterlanak eta proiektuak orientatzean eta bideratzean datza patroien eginkizuna, eta horrez gainera interes komunak dituzten beste erakundeekiko harreman posibleak bultzatzen eta indartzen ditu Fundazioak.

Montserrat Caballé (Musika)  
Carmen Iglesias (Kultura)  
Víctor García de la Concha (Literatura)  
Valentín Fuster (Osasuna)  
Antonio López (Artea)  
André Tchernia (Historia)  
Ferrán Adriá (Gastronomia)

## BULTZATZAILEA. SANTIAGO VIVANCO

### ARDOAREN KulturAREN espeZialista ETA ARDOAREN ZABALKUNDEAREKIN KONPROMETITUA

Logroñon jaio zen 1973an, aita Requenatik (Valentzia) itzuli (han lizentziatu baitzen Enologian), eta handik bi urtera. Hantxe hasi zen ardoarekin zerikusia zuten gauza guztien bilduma egiten. Santirentzat ardoa beti izan da usainak, zaporeak eta testurak baino askoz ere gehiago. «Aitak eta aitonak eramaten ninduten mahastiak eta lursailak baino askoz ere gehiago».

Ardoaren eta ardoak gizakiarekin partekatu dituen 8.000 urteko historiaren atzean dagoen giza alderdia interesatzen zitzaien.

1998an aitaren eta familiaren ametsa zena hasi zen lantzen: Ardoaren Kulturaren Museo baten eraikuntza. Leku bat bilatzen zuten, non, bisita egin ondoren, jende guztiak ulertuko baitzuen ardoaren eta gizakiaren artean sortu den sinbiosi-harreman hain estu eta berezi hori. 2001. urtean Fundazioa sortu genuen, ondare hau guztia ezagutarazteko eta sakontzeko balioko zuen lanabes bat eskuratzeko asmoa hartuta. Nerudaren poema bat parafraseatuz, «ardo kiribildua, ardo harrotua (...) inoiz ez zara kopa batean, gizon batean kabitu». Ardoa beti da gehiago.

## DOKUMENTAZIO-ZENTROA

Ardoak historia asko kontatu dizkigu, eta are ikuspegi gehiagotatik. Batzuk mahastiari eta mahastigintzari buruzkoak ziren. Beste batzuk elikaduraz mintzatzen dira, eta nola sartu zen ardoa gure bizitzetan kontatzen digute. Eta badira pintzelen bitartez, edo gubilen eta zizelen bitartez adierazten direnak ere.

Ardoa era askotara ibili da bidaian: pelikula, komiki, postal, txanpon, estela, errezetategi moduan; aldizkari, entziklopedia, elkarrizketa eta tratatu, doktorego moduan. Ardoak mila historia izan ditu mendeetan zehar, eta ez ditugu galdu nahi. Horregatik bururatu zitzaigun egokia zela Dokumentazio Zentro bat sortzea, historia horiek denak biltzeko.

Katalogatzeko. Zentzua izan zezaten denek, eta behar dituenaren eskura egon zitezten. Gu zuzenean bisitatuz, edo Interneten eta gure webgunearen bitartez. Material sorta zinez zabala, kontsultatzeko eta gizonarekin 8.000 urteko historia partekatu duen edari unibertsal honen berri ikasten jarraitzeko.

Ardoaren Dokumentazio Zentroaren bokazioak bere horretan iraun du 2004ko ekainaren 29an ateak zabaldu zituen geroztik: ardoarekin eta ardoaren kulturarekin lotutako munduko funts dokumentalik handiena bildu, eta azterlarien, zientzialarien, edo, besterik gabe, ezin pentsatzeko ondarea utzi digun edari honen zale eta jakin-nahien eskura jarri.

Hamarraldi bat baino gehiago igaro delarik, Dokumentazio Zentroak katalogazio-lana egiten jarraitzen du, bilduma oso handia baita, eta etengabe erosten dira dokumentu hautatuak, eta material nazionala nahiz atzerriarra. 8.000 monografiatik gora daude Vivanco Ardoaren Dokumentazio Zentroan, hainbat hizkuntzatan, eta luxu bibliografikoa suposatzen dute, bai obren kalitateagatik, bai kopuruagatik.

Badira zentroan inkunableak (tipo mugikorrekin inprimaturiko liburuak, inprenta sortu zenetik 1500 urtea arte, azken hori barne dela), nola den *De conservatione sanitatis*, zeinak oraindik ere jatorrizko azalak gordetzen baititu, eta badira argitaletxeek kaleraturiko azken lanak ere. *De agricultura vulgare*, Pietro de Crescenzi egilearena, 1519ko veneziar edizio bat da; *De las propiedades de las cosas*, Bartholomeus Anglicus-ena, 1494koa; Filippo Beroladoren *De felicitate opusculum*, 1499ko obra da, ardoaren ezaugarri osasuntsuez diharduena... denak daude Ardoaren Liburutegi honetan. Baita Pasteur handiaren jatorrizko dokumentuak ere, eskuz idatzitako gutun bat, besteak beste; edota Pablo Neruda poetaren eskaintza, *Las uvas del viento* liburuaren lehen edizioan. Horrez gainera, badira Ardoaren Liburutegi honetan mundu osotik heldutako

txartelak, milaka argazki eta postal, betiere ardoa edo ardoaren ikonografia protagonista direla... denek adierazten dute sortzaileen bilduma-zaletasuna, eta gizakiaren eta ardoaren historia liluragarria sakontzen jarraitzera gonbidatzen gaituzte.

## ARGITALETXEA

Elkarbizitzako 8.000 urte hauen historiaren bilduma egiterakoan, konturatu ginen hainbat obra falta zirela ardoaren inguruan zeuden erreferentzia askori zentzua emateko, materia eta gai jakinetakoak. Literaturan. Zineman. Emakumearen inguruan. Erlijioen inguruan.

Zenbat idatzi da ardoaz? Nola iraun du hainbeste liburu, pelikula, obra eta egileengan? Giza pentsamenduak gauza asko islatu du, estilo desberdinekin, eta egile eta teknika oso desberdinen bitartez. Horregatik erabaki genuen horiek guztiak biltzea, liburu bakar batean egon zitezten denak. Horixe izan zen gure argitaletxearen sorburua. Gai desberdinak bilatu, sakon analizatu eta haiei buruzko erreferentziazko liburuak sortu, betiere Ardoaren Kultura den unibertso honi ekarpen berriak egiteko asmoa hartuta.

Liburua erruz argitaratu dugu dagoeneko. Argitalpen horien artean daude, besteak beste: *Museo de la Cultura del Vino: Arquitectura*; *El Vino de los Faraones*; *De Agricultura Vulgare*; *El Cáliz de Letras*; *El Cine del Vino*; *Una copa para dos: Relatos de Mujer y Vino*; *La Platería en la Cultura del Vino: colección Vivanco*. *Badira haurrentzako lanak ere: El Estornino Saturnino en la Tierra del Vino eta De la A a la Z: la Cultura del Vino*. Horrez gainera, hainbat katalogo dauzkagu, Vivancok bultzaturiko erakusketetakoak, hainbat gairen inguruan zentratu direnak, nola diren ardoaren eragina zineman, komikietan edo erlijioetan; baita ardoak historian zehar emakumearekin izan duen loturan ere.

Denak dira argitalpen guztiz bereziak eta beharrezkoak gure misioari zentzua emateko: Ardoaren Kultura zabaldu.

## ESPERIENTZIAK

ZENBAT DENBORA DA EZ DITUZULA ZURE ZENTZUMENAK ESNATZEN?

UNE GUZTIZ BEREZIETAKO 9.000 M<sup>2</sup>. ARDOAREN UNIBERTSORA HURBILTZEKO BESTELAKO MODU BAT, EZIN AHAZTUZKOA

Asko dira ardoa sentitzeko moduak, eta denak bateratzen saiatu gara, nolabait ere, Vivancon. Ardoa, ardogintzaren funts gisa: hordigarria, betea eta gozoa. Ardoa, historiak ematen digun ikuspegiarekin: misteriotsua eta betierekoa. Ardo irakurria, kontatua eta amestua. Baina gehiago ere bazen. Ardoaren inguruan gertatzen den guztia. Ardoaren alderdi bizia, egunerokoa. Ardoaren proposamen dibertigarria, hunkigarria eta zentzumenezkoa.

Xede bakarra dute ardoarekin egiten ditugun gauza guztiek: ardoarekiko elkarreragina eta gure zentzumenak askatzea. Ardoa bizi-estilo gisa: horrelaxe ulertzen dugu guk. Horiexek dira Vivanco Esperientziak: kopa baten hotsa ardo-dasta batean; upelategi baten bisitaldian, ilunpetan ezkutaturiko ardoaren usaina; plater baten sorpresa gure jatetxean. Bidaia misteriotsu bat da ardoaren kultura, museoan barna egindako ibilbide batean. Ardo ukitua, ardo sentitua eta bizitua. Hori dena eta askoz gehiago eskaintzen dizugu une guztiz bereiziko 9.000 m<sup>2</sup>tan. Ardoaz maitemintzeko modu diferentea, eksklusiboa eta ezin ahaztuzkoa. Partekatzea gonbidatzen zaitugu.

## BISITALDIAK

Ardoa mundura zabaldu. Ardoa sentitu eta bizitu. Horixe eskaintzen dizuegu gure bisitaldi-katalogoaren bitartez. Helburua bikoitza da: gehixeago ikasi, ardoa biluztu, eta, batez ere, ardoaz zentzuen bitartez gozatu. Erreserba itzazu, gutxienez, pare bat ordu ardoa ezagutzeko. Zer ikusi eta zer sentitu asko dago. Izango duzu gure upelategia ezagutzeko aukera ere. Gure adituen eskutik, ardoa eta ardoaren prozesu guztiak nola ulertzen ditugun jakingo duzu, ardo-dasta iradokitzaile eta irakasbide-balioko batez amaitzeko.

## IKASTAROAK

Ausartuko ote zinateke mahatsa biltzera? Ba al dakizu zer nolako bilakaera duen mahatsak upelategian sartzen denetik ardo bihurtzen den arte? Ba al dakizu zein diren prozesuaren uneak? Nahi al duzu jakin zer den inausketa eta zergatik egiten den? Hori dena eta askoz ere gehiago nahi dugu zuekin partekatu. Ardoak aurpegi asko dauzka. Aurki itzazu gurekin!

## ARDO-DASTAK

Zer usain dario ardo bati? Lore-usaina, fruta-usaina, zur bikainena? Ardo batean 100dik gora usain aurki genitzake. Naturalak dira denak, mahatsetik datoz, mahatsa landu den tokitik, ardoa egiteko edo hazteko prozesutik. Modu desberdinak dituzu usain eta zaporeen unibertso honetara hurbiltzeko: horien artean, enologo eta sumiller profesional batekin, ardo-dastaren munduan sartzen hasteko prestakuntza. Publiko espezializatuagoetara ere egokitu daitezkeen ikastaroak. Esperientia daitezkeen sentipenez betetako mundu bat, gure ardo bakoitzari esker, Enodendako dasta-espazioan.

Vivancok dasta-areto bat dauka, behar diren guzti-guztiek hornitua. Aretoak 21 lagunentzako tokia du; mahai bakoitzean beharrezko elementu guztiak daude, argiak barne direla (gorria itsuan egiten den dastarentzat, eta neoi zurizkoa, erregula daitekeena, dasta-ikastaro eta dastatze berezietarako), ardoaren ñabardurak sakondu nahi dituen jendearentzat.

Aretoko argi meheak, eta orobat dekorazioak eta banaketak eskaintzen duten lasaitasunak, ezin hobeak dira izan litezkeen baldintzarik hoberenetan ardoa gozatu eta dastatzeko, edozein delarik ere bertaratuen jakintza eta espezializazio maila.

## MUSEOA

Zaila da paper hutsean esplikatzeko zer den eta zer eskaintzen duen Ardoaren Kulturaren Vivanco Museoak. Horretarako, bisitatu egin behar da, ikusi eta sentitu. 4.000 metro koadro eta sei areto dira, bat aire zabalekoa, eta gizonak eta ardoak 8.000 urteko historian zehar izan duten harremana islatzeko xedea dute.

Eta hori dena, helburu bakar batekin: hezi, erakutsi, jakintza zabaldu eta ardoarekin elkarreragin, elementu zibilizatzailea den heinean. Eta hori guztia, esperientziatik, sentikortasunetik, errespetutik eta berrikuntzatik bideratua.

Lanean eta eginahalean urteak eman ondoren, munduko Ardoaren Kulturaren ikono handietako bat delakoan errespetatzen eta aitortzen da Museo hau. Xehetasun guztiak zaindu ditugu guztiz museo berezi bat egiteko, bisitari guztiek parteka dezaten ardoaren kulturak sortzen digun pasioa.

### Jatorria

Juan Carlos erregeak inauguratu zuen Vivanco Museoa 2004. urtean. Museoa betidanik saiatu da familiaren bilduma-zaletasunezko 40 urteak ordenatzen eta zentzu bat ematen. Pieza guztiak jatorrizkoak dira, historia bat kontatzen dute denek, Brionesera iristean bururatu zena. Museo hau unibertsala da, eta ez da leku jakin batean gelditzen: hasiera-hasieratik gaur egun arte berregiten du Ardoaren Kulturaren historia, mundu osoan izan dituen agerraldiak gogoan hartuz. Heziketazkoa eta interaktiboa izatea da Museoaren beste ezaugarri garrantzitsu bat, eta ikus-entzunezkoen laguntza handia du. Gure Ardoaren Kulturaren zaletasuna partekatzeaz gainera, Museoak erakusten eta azaltzen du zergatik egon den ardoa beti gizakiarekin lotua eta zergatik, mendeak igarota, ezin dugun baztertu. Gure partekatzeko irrika horretan, berebat eraitsi ditugu Museoako harresi arkitektonikoak, eta badugu itsuentzako ibilbide berezi bat eta braille-informazioa ere.

## PASIO EGINDAKO KEZKA BAT, ARDOAREN MUNDUA INOIZ IKUSI EZ DUGUN BEZALA ERAKUTSIKO DIGUNA

### MARKA-ALDAKETA

«Marka bat ez bazara, salgai bat zara.» Philip Kotler

Zergatik aldaketa bat gure markan? 2011n, zazpi urte generamatzala merkatuan, geure buruari gure marka non zegoen galdetzea erabaki genuen. Marka hazia zen, ezaguna zen, baina haren dinamismo handiak kontzeptuak ondo taxutzera behartzen gintuen.

Bere kokagunearen, ardoaren kulturaren pasioaren eta pasio hori munduarekin partekatzeko dugun desiraren isla leiala izango zen marka bat behar genuen.

**Nondik:** Vivanco Dinastia



**Nora:** Vivanco, Enoturismoa eta Esperientziak: ardoaren kultura partekatzea

**Web:** [www.vivancoculturadevino.com](http://www.vivancoculturadevino.com)

DOKUMENTAZIO-ZENTROAN ere heldu zen lan egiteko eta gure jakintza zabaltzeko beste modu bat bilatzeko unea.

Erakundeentzako software sozial baten garapena bilatu genuen, teknologia semantikoaren eta datu egituratu eta esteka daitezkeen alorreko softwarea. Sare Sozial Korporatiboen plataforma sozial eta semantiko bat, jakintzaren kudeaketa, ikasketa informala, inguru bereko lankidetzak, etab. biltzen zituena, guri dagokigun jakintzaren alorrean: Ardoaren Kultura.

Gure proiektua: Ardoaren Kultura zabaltzea eta sustatzea, gure Ardoaren Museoa hobetzeko eta sustatzeko, eta, era berean, baita ardoen salmenta eta ezagutza hobetzeko eta sustatzeko ere. Ardoaren Kultura PARTEKATU.

#### PROIEKTUAREN HELBURUAK

Galdera hauei erantzun behar genien: zer egingo dugu eta zer lortuko dugu proiektuarekin? Zertarako ari gara honetan? Ekintza jakinen bitartez proiektuak iritsi nahi dituen emaitza kualitatiboen bidez, haiek egitea justifikatzen dugu.

Helburuak honako hauek dira:

#### **Teknologia semantikoak dakartzan abantailak**

Teknologia semantikoak funtsezko abantailak dakartza informazioaren trataerari dagokionez, SQL datu-basean oinarritutzen den informatika tradizionalaren mugak, zurruntasunak eta murrizketak gainditzen dituen ikuspegi teknologikoaren ondoriozko trataera baita.

Hasteko, honako hauekin dute zerikusia abantailarik agerikoek:

- Interneteko eduki guztien eta bakoitzaren posizionamendu hobea. Bilatzaileek semantika ezagutzen dute, dokumentuek esan nahi dutena «ulertzen» dute. Esanahia emateak edukien ikusgaitasun handiagoa dakar. Horrek ondorio argiak ditu bisitaldien kopuruan eta konbertsio-tasan, dokumentuak publikoak direnean. Zenbat eta klik gehiago, orduan eta ikusgaiagoa marka.
- Bilatzaile sailkatuak sortzen dira, informazio-bilaketaren prozesuan arrazoitzeko gai direnak, eta erabilatzaileari emaitzen zerranda murrizten

eskaintzen dizkietenak, datuen propietate edo ezaugarri semantikoetan oinarrituak. Bilaketa berri batek aurreko bilaketaren datuen azpimultzoa murriztuz lezake, sailkapen ugariaren bitartez. Posible da emaitzak filtratuz joatea, harik eta datu multzo erabilgarri bat osatzen den arte. Bilaketa ikasketa-bidea bihurtzen da.

- Gomendio-sistema indartsuen sorrera. Semantikaren bitartez, grafoak sor litezke eta, era horretan, dokumentuen artean dauden erlazioak agertu, dokumenturik «antzekoenak» eta beste pertsona batzuek ere kontsultatu dituzten dokumentuak aurkeztuz. Amazonen kasua da horren adibide bat: nik erosi dudana liburuak irakurri duten pertsonak ere irakurri dituzten liburuak aurkeztu ohi ditu Amazonek; nire interesekin, nire desirekin eta kezkekin lotua dago agertzen den web dinamikoa.

Informazioari buruzko testuinguruaren sorrera. Informazio guztia datuen bitartez lotua dago, eta sare handi konektatu bat eratzen du. Dokumentuak «egituratuak» edo «semantizatuak» daudenean, oinarriak ipintzen dira, eta era horretan datuak beste datuen testuinguru gisa ager daitezke, eta, hortaz, balioa ematen zaie. Imajina dezagun informazio-testuinguru gisa agertzen dela erreferentziako legedia, baten bat izapide eta dirulaguntza jakinei buruzko informazioaren bila dabilenean.

Hala bada, teknologia semantikoak VIVANCOren edukien balioa handitzen dituen faktore bat da, datuak modu eraginkorragoan eta irizpideen edo dimentsioen arabera bila baitaitezke, gomendio-sistemak sor litezke azken erabiltzailearentzat – erabiltzaile horren interesei eta kezkei loturiko sistemak dira–, eta edukiak berebat egituratuak dauden eta, hortaz, testuinguruak sortzen dituzten eta eduki interesgarriez hornitzen diren elementuak izan daitezkeen espazioekin elkartu daitezke.

Lehen abantaila horiez gainera, teknologia semantikoak daude Linking Open Data proiektuaren oinarrian (datu irekiak eta esteka daitezkeenak). Ikuspegi hori duela hamar urte baino gehiago azaldu zuen Tim Berners-Leek sarearen etorkizunerako, sarea mundu mailako datu-base baten moduan ulerturik. Teknologia semantikoaren bidez, dokumentu-sare batetik datu-sare batera igaro gaitzake, eta datu horiek pertsonen interesaren arabera lotu. Era horretan, VIVANCOren edukiak, behin semantizaturik, txertatu ahal izango dira eta LINKING OPEN DATA WEB proiektu handian dauden datuekin elkarreragin, eta modu askoz ere indartsuagoan ustiatzeko moduan egongo lirarteke.

Ardoaren Kulturaren gaineko Metamuseo / Metaespazio / Metabilatzaile baten eraikuntza da zenbait hilabeteetan lantzen ari garen proiektua zeinaren xedea baita tresna egokia izatea marka berria, irudi berria sustatu ahal izateko, eta orobat ondorengo hamar urteetan gure kultura-proiektua osorik «bultzatzeko», gure hamargarren urteurrena ospatzen ari garen honetan.

Proiektu honen garapena oso modu konkretuan ulertzen dugu: lankidetzak-hitzarmenak, koalizioak edo une jakineko elkarlan-hitzarmenak izenpetuz kulturaren munduko beste erakunde publiko edo pribatuekin.

Vivancoren proiektua, sortu zenetik bertatik, pribatua izan da guztiz, baina hori ez da inolako eragozpena guztiz publikoak diren erakundeekin lanean jarduteko, oso bestela baizik.

Gaurko eguna arte, honako erakunde hauekin izenpetu ditugu hitzarmenak: Liburutegi Nazionalarekin, CSICekin eta Cervantes Liburutegi Digitalarekin.

Eta hizketan ari gara eta negoziazioak egiten Lázaro Galdiano Fundazioarekin, Museo Arkeologiko Nazionalarekin, eta elkarlanean jarraitzen dugu Artiumekin berarekin ere.

Lankidetzeta-moduari dagokionez, irekia da erabat. Zentro bakoitzak zaintzen dituen objektu digitalak partekatzea da xedea, edozein formatutakoak (argazkiak, bideoak, audioak, etab.), eta beti ere ardoarekin eta ardoaren kulturarekin lotuak.

Erakunde horiek guztiek beren funtsak miatzea eta ardoarekin eta ardoaren kulturarekin loturiko guztia aurkitzea, hori dena gero guk web espazio bakar batetik partekatu eta zabaltzeko moduan: gauza bikaina izango litzateke hori guztia lortzea, eta zinez egokia gure ikuspegitik.

Berriz ere, teknologia izango da hari gidatzailea eta lotura-bidea.



**Nuria del Río Pozo**

**232 errepide nazionala, 442. Km. 26330 Briones (Errioxa)**

**608745416**

**biblioteca@vivancoculturadevino.es**